

## **Andoainek ibilgailu elektrikoak kargatzeko sarea handitu du, karga azkarreko lau kargagailurekin**

Andoaingo Udalak **ibilgailu elektrikoak kargatzeko bi gune berri** jarri ditu martxan, guztira **lau kargagailu dituztenak**, udalerriko ibilgailu-parkean azken urteotan izan den gorakda nabarmenari erantzuteko.

Egokitutako bi guneak **Agustin de Leitza kaleko aparkalekuan eta Aiztondo kalearen parean dagoen aparkalekuan daude**, CAR Rectificados enpresaren ondoan. Horietako bakoitzak **bi kargagailu** ditu, eta guztiek **44 kW-ko potentzia dute**. Horri esker, **karga azkarrak egin daitezke**.

Erabilera-sistema erraza da, eta terminalean bertan egiten da zuzenean. Kargatzen hasteko, **mahuka ibilgailuari konektatu behar zaio, ordainketa kreditu- edo zordunketa-txartel bidez egin behar da** erabilgarri dagoen STaren bidez, eta, ordainketa egin ondoren, karga automatikoki hasten da. Kargaren prezioa une bakoitzean energiaren kostuaren araberakoa da.

Kargatzeko gune bakoitzean ikusteko moduan daude **erabiltzeko jarraibideak, baita laguntzeko telefonoak eta Udaltzaingoaren kontaktuak ere, edozein gorabehera edo matxurari erantzuteko**.

Jarduera horrekin, Andoaingo Udalak **zerbitzu publikoak hobetzen eta mugikortasun iraunkorragoa eta ingurumena gehiago errespetatzen duena sustatzen jarraitzen du**.

Andoain, 2026ko apirilak 09